

Udalerri Aktiboak

*tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia
jarduera fisikoa sustatzeko*

Udalerri Aktiboak. *Tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia jarduera fisikoa sustatzeko*

PROGRAMA

09:00-09:15 Aurkezpena

Maria Elena Lete. Bergarako alkatea.

Elena Albusua. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea.

Emilio Sola. Eusko Jaurlaritzako Giza Zerbitzuetako zuzendaria.

Jon Redondo. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol zuzendaria.

09:15-10:00 “*Sareak*, komunitateak, aniztasuna, berrikuntza (eta alderantziz).

Roberto Gómez de la Iglesia. c2+i/conexiones improbables enpresako zuzendaria.

10:00-10:30 Eusko Jaurlaritzaren ekimenak *sare*-lana sustatzeko.

- Osasun sare komunitarioak.

- Euskadi Lagunkoia.

- Mugisareak.

10:30-11:00 Jarduera fisikoa sustatzen duten tokiko *sareak* sortzeko eta funtzionamendu egokia izateko metodologia. Pausuak eta gakoak.

Iker Etxeberria. Mugiment.

11:00-11:30 ATSEDENALDIA.

11:30-12:30 Tokiko *sareen* esperientziak:

- Debagoiena eskualdearen osasun sarea.

- GazteizkoJudimendi auzoko osasun sare komunitarioa.

- Zuia-Urkabustaiz-Kuartangoko ZUK Mugisarea.

- Lezoko jarduera fisikoa sustatzeko tokiko sarea.

12:30-13:45 Tailer praktikoa: “Gertagaitza egokitzea *sare* berritzaileak sortzeko”.

Dinamizatzailea, Roberto Gómez de la Iglesia.

13:45-14:00 Jardunaldiaren itxiera

Antton Garcia Lopez. Ermuko Kirol Koordinaziorako Teknikaria.

Udaleri Aktiboak

*tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia
jarduera fisikoa sustatzeko*

SARETZEHARAINO ERATUZ

Bergarako Zabalotegi Aretoan urriaren 28an Eusko Jaurlaritzak, Debagoieneko Mankomunitateak, Kirolaren Euskal Eskolak eta Bergarako Udalak *Udaleri Aktiboak*. Tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia jarduera fisikoa sustatzeko titulupean antolaturiko topaketei amaiera ematea eta sintesi laburra egitea egokitu zait eta hori egitea plazerra da niretzat, are gehiago estimatzen ditudan lagun eta kideek eskatuta izan denean.

Topaketa hauek, euskerazko “topatu” hitzetik tiraka, aurkitzeari gorazarre egiten diona eta galdera berriak egiteari garrantzia ematen diona, alegia, hiru ataletan banatuta egon dira, beti ere udalerriek bizimodu aktiboen sustapenaren aurkikuntza lanean sakontzeko asmoz.

Rosa Lasagabasterri esker, sintoniaz hasi gara eguna, adi, bost zentzumenak alde zurretik entrenatuz eta datorrenerako prest.

Atalen hitzaurre gisa, Roberto Gomez de la Iglesiak, “Sareak, komunitateak, aniztasuna, berrikuntza (eta alderantziz)” izenburupean goizean zehar etengabe harilkatu diren hainbat ideien euskarriak eskeini ditu, sareen funtsa diren ezberdinen arteko kooperazio irekia, sareko partaideen arteko konfiantza eta euren arteko zilegitasuna, begirunea, enpatia, elkarrizketa, behaketa eta entzutea, “ebanjelio” berri honen “Aginduak” gisa ezarriz.

Ondoren, maila autonomikoan gure erreferentzia instituzionala den Eusko Jaurlaritzak, sare-lana sustatuz eta herri komunitatearen parte diren eragileak elkarlanean arituz abian dituen *Osasun Sare Komunitarioak*, *Euskadi Lagunkoia Sustraietatik* programa eta *Mugisare* estrategia aurkeztu dizkigute Aitziber Benitok, Idoia Ebrok eta Iker Etxeberriak, hurrenez hurren.

Bigarren atala, osotasunean jarduera fisikoari espreski heldu diona, *Jarduera fisikoa sustatzen duten tokiko sareak sortzeko eta funtzionamendu egokia izateko metodologia*. Pausuak eta gakoak. Iker Etxeberria bera aurkezle izan du; talde sustatzaile teknikoak, tokiko eragileekin talde hedatua eta herritarrak barnebiltzen dituen eragiteko metodologia proposamen honek, pertsonen aktibotzea du helburu, dekalogo propio eta guzti.

Goizak aurrera egin ahala, administratiboki, baita metodologikoki ere, goitik beherako bidea egin eta tokian tokiko ekimenen ahotsa entzuteko parada izan dugu.

Aurkitzearen edo topatzearen lan honetan, Iñaki Ugarteburuk *Pensoi Programa*, Debagoieneko haurren loditasunean esku-hartzeko sare ez-ofiziala baina burutzapenean eta ezagutza partekatzean “ofiziala” den egitasmoa; Garbiñe Mendizabalek eta Zalao Gorostizagak Gasteizko *Judimendi auzoko Osasun Sareak*, komunitatearen hobekuntza helburu eta osasunean esku hartuz, sustraietatik eta gertutasunez ekite-ildoak adostutako proiektua; Gorka Iturriagak, Zuia-Urkabustaiz-Kuartangon, sakabanaketa geografiko handiko landa eremu batean, *ZUK Mugisarearen* lehendabiziko urrats xumearen, baina zalantzarik gabe, eraginkorraren testigantza; eta tokiko esperientziekin amaitzeko, Gemma Estevezek eta Arkaitz Angiozarrek *Lezoko Zahartze Osasungarriaren* jarduna, osasun komunitarioaren eta

Udalerri Aktiboak

*tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia
jarduera fisikoa sustatzeko*

komunitatearen arteko talka administratibotik abiatuz, barrikadetatik, alegia, kurba handiko errepidetatik barreiatuz, kemenez, kohesioz, utopiari zentzua emanez eraikitako bidea; hauek izan dira, hurrenez hurren, pertsona bakan eta ekintzaileek utzitako legatua.

Zientzia eremuan ideia totemikoa den *“galdera egokiak behar dira, erantzun zuzenen orde”* esaldiari helduz, galdera berrien bila gabiltza etengabe, jakintza- eta ekite-arlo ezberdinekin analogiak sortuz eta gertagaitzei egokitzeko ahalmena izango duten pertsonen sare berritzaileak eratuz, tailer praktikoan Roberto Gomez de la Igleziak gogorarazi eta biziarazi digun moduan.

Tokiko sareak sortzea. Jada konturatuko zineten eran, saretzea eta sortzea izan ditugu goizeko jardun eta elkarrizketa gaiak. Onartuko didazue *“sortze”* hitzaren orde *“eratze”* hitza ahoratzea, gaurkoan hizketagai izan dugun saretzearen ideiatik gertuago sentitzen baitut.

Baliteke oker egotea, baina uste dut mamia duela *“eratze”* berba honek. Euskeraz eratze terminoak har dezakeen zabaltasunean, norbanakook norbere kabuz eratzean autoeraketa prozesu bat abian jartzen dugu. Autoeraketaren kontzeptuak bere baitan bil ditzake autodeterminazioa, autogobernua, autoantolaketa eta autokudeaketa edo autogestioa. Autonomiaz sortu eta jardutearen mailakatze edo une desberdinak (sortzerakoan, determinatzerakoan, antolatzerakoan eta gero egunero kudeatzerakoan) batu ditzake, multzo handiago batean.

Zentzu honetan, kirol edo osasun kudeatzaile gisa geure burua dugunok, edo izan dugunok, kudeaketaz edo gestioaz etengabe aritu garen urteotan, *“autogestio”* hitza murrizta dela deritzot; izan ere, kudeatzea, gestionatzea, *manage*, mailakatze horretako zati bat besterik ez baita. Autokudeaketa eta autoeraketa ez dira sinonimoak. Azken hau sare zabalagoko kontzeptua da, paradigma baten erdigunea adieraz dezakeena, eta erdera nagusiek ez daukate baliokiderik martxan.

“Autoeraketa” kontzeptuaren atzean intuizio politiko bat dago, *“politiko”* hitzaren zentzurik irekienean, hitz horren bidez egokiago adierazten dena bere zabaltasunean. Etorkizuna pentsatzeko eta orainean ekiteko paradigma bat izan daiteke, susmo hori adieraz dezake hitzak, *“gestio”* moduko batetik harago doana.

Ideiaren muinean bertan, autoeratzeak fusionatu egiten ditu sustantiboa eta aditza, helburua eta bidea. Ipar lausoa izatera iritsi baino lehen, zera baita nagusiki: jarduna. Eta jarduna hobeto adierazten du autoeratze hitzak.

Autoeratzea bidea da, jarduna, eta esparrurik txikienean begia jartzera gonbidatzen zaitu, harreman eredutik hasita egitura zabalagoetara.

Autoeratzearen printzen bila gabiltza, beraz, han eta hemen, eta milaka dira ipurtargi kolektiboak, beti hanka bat lokatzetan, herrenka baina aurrera doazenak. Eta herrenka doaz autoeratu eta saretzea erabaki dutenak.

Udalerri Aktiboak

*tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia
jarduera fisikoa sustatzeko*

Autoeratzearen adierazpenik nabarmena eta seguraski garbiena pertsonen arteko saretze lana da. Gaur hemen bildu garenon gehiengo batek, instituzio baten ordezkari gisa gatoz Bergarara. Ta ez dezagun ahaztu instituzioa ez dela erakunde abstraktu bat; aitzitik, pertsonek egiten dute instituzioa.

Pertsonak, instituzioak eta saretzea. Egun, saretzea urruti dagoela uste dut. Inkontziente kolektiboan saretzea urruti dago, ia beste edozein lan metodologia baino urrutiago seguraski. Horregatik da halako meritua haraino iristea. Ta meritua izan, bada, saretzen aritu eta ari direnena. Euren ahalegina, euren buruhauste ordu pila, gizartea aktibatzeke, sendetarismo gaitza gai bihurtzeko euren ekarria.

Baina sarean lan egitearen meritua ez da jarduteke, eraikitzeke era honen urruntasuna. Saretzearen meritua batzuentzat "alferrrikakoa" dena bultzatzean datza. Alferrrikakoa komatxo artean zihoan badaezpada, komatxoak ondo entzun ez badira ere.

Alferrrikakoa izan eta, hala ere, saretzen jardun izana. Hor dago gaur mahai gainean jarri diren adibideen protagonisten epika. Eta horregatik da koherentea, administrazioak bereziki eta hemen gaudenok oro har, saretzen diharduten pertsonak aitortzea. Hemen gizartearen ongizatearen arkitekto eta eragile zairetenon saretzea beharrezana ez den bitartean, meritua izango baita eta latza saretzea.

Ta horregatik, saretzera iristea, edo hobe esan, saretzearaino iristea, aurreku, etxafuego eta konfetiz hartzen dugu askotan. Hori badaki Epik eta badaki Blasek ere.

Herrigintzan, kulturgintzan, feminismoan edo internazionalismoan jardunean dauden elkarreetako lagunekin hizketan ari zarenean, arlo profesionalean saretzen diharduzula esan eta, zure elkarlan eta kooperatibismoarekiko erromantizismo senetik, espero duzu ostean zure lagunek obazioa egingo dizutela ahaleginagatik. Baina botatzen dituzu egindakoen bizipen ugariak estropuzka eta zure lagunak arrunt arrunt hartzen dute zure ahalegintxoan, batere espanturik eta miresmen sobreaktuaturik gabe. Ta orduan zu, pausa luzatzen saiatzen zara, zure etxafuegoen eta konfetien zain.

Baina ez; ez dago omenaldirik jendarte berri eta eraldatzailean urteak borrokan dabiltzan horientzat arrunta dena egiteagatik. Hala gertatzen da herrialde normal antzekoetan.

Gurean, sarean dihardutenekiko miresmena, aldiz, ederra izanik, gure administrazioen egituraketa desorekatu, zaharkitu eta zurrunaren sintoma argia da.

Badakit, herrigintzan, kulturgintzan, feminismoan nahiz internazionalismoan diharduten elkarreak ez dira administrazioak. Beraz, saretzearen ideia erromantikoak luze joko digula aurreikus liteke.

Izan ere, jendarte aktibo, osasuntsu eta zoriontsu baten eraikuntza jorra daiteke alde politikotik, administratibotik, orain arte dihardugun bezala, baina bere baitan beste mila

Udalerri Aktiboak

*tokiko sareak sortzea eta horien funtzionamendu egokia
jarduera fisikoa sustatzeko*

moldez ere: pertsonalki, kolektiboki. Eta hor nekezia nagusi da, bitxiki, proiektuak garatzeko, elkar ezagutzeko, ondoko herrira joateko, elkarri ulertzeko, gure izpirituen mugak gainditzeko.

Administrazioko mugek ematen dutena arbuiatu gabe, nahikeria duenak egin dezala, lehenik, ataritik, gauza txikiak, konkrituak. Ez elkarri ikasgaiak emanaz, ez paternalismoz, ez errukiz. Ez. Motibaturik, kementsu, esku zabal, huts egiteaz beldurrik gabe, ibiliz, joanez besteengana, kuriosak izanez. Hots, ikuspegia zabal eta ekin, guztiek irabaztekorik baitugu besteengandik, goitik beherakoan ez baita sekula iraunkor ezer etortzen.

Eta egungo mugak zubi bihurtzeko bide honetan, pertsonen aktibotzea sare aktiboen helburu den bide honetan, alegia, nonbait beharko dugu abangoardia, saretzen diharduen pertsonarena epikatik etikara pasatzeko. Saretzea galdekizun intimo izatetik administrazioaren erantzunkizun sozial izatera pasatzeko. Saretzeharaino bide egiteko, erreztasunak, medioak eta exigentzia jarrita, noski. Ahalegina aitortzea ondo baitago, eta nik hemendik zorientzen zaituztet ahalegin hori egin duzuen guztiak: zuek zarete demasak! Baina estrategikoki, eta luzera begira, aldea dago planteamenduetan: borondatea eskertu ala zilegi dena eskatu. Saretzea helmuga den ala abiapuntua.

Hala bazan ta ez bazan ea ipuina aldatu dela sartzen zaigun kalabazan ta ipuin berria irakurtzen jarrai dezagun zuen herriko plazan.